

Alaves ♦ Lehen derbia galdu ondoren, entrenamenduetara itzuli ziren atzo arabarrak

Derbiaren ajea eta etorkizun zaila

«Taldea ondo dago, baina minduta», esan du Ibon Begoñak


Xabier Fernandez / Gasteiz

EZ zen atzokoa egunik gozotena Alavesentzat, eta ez bakarrik denboraldiko lehen derbia galdu zuelako, baizik eta zulotik irteteko hain garrantzitsuak diren etxeko puntuek berriro ihes egin zutelako. Gotorlekua izan beharrean, zelai errazaren traza hartzen ari baita Mendizorrotza zelaia. Gaurdanik belarra konpontzen saiatzen ari dira, eta, behin eginez gero, ez da inolako aitzakiarik izango.

Bitartean, igandeko bigarren derbiari begira ari dira jada gasteiztarrak eta, zergatik ukatu, baita Betisen aurkako neurketari begira ere, zeren Donostiako Anoetan jokatu eta gero astebeteko egonaldia izango baitu Arabako taldeak Cadizko Sancti Petri herrian.

Atzoko lana, dena den, bigun samarra izan zen igandean titular aritu ziren jokalarientzat, luzapenak eta beste ariketa fisiko arin batzuk egin baitzituzten. Gainerakoek, Belsue, Sivori, Rocha eta Berti barne, lan gogorragoa zuten zain Jose Manuel Esnal Mane-ren agindupean.

Saioa bukatu eta gero, luze eta zabal hitz egin zuen entrenatzaileak Ivan Rocha jokalariekin, hutsune handiak izan baitzituen brasildarrek Athleticen aurkako norgehiagokan.



JOSEBA OLALDE

Alaveseko Canabal eta Athleticen Larrazabal, igandeko derbian.

Ibon Begoñaren hausnarketa

Prentsa aretoan Ibon Begoñak eskaini zigun Alaveseko lan taldearen isla zuzena. Lehenik, taldearen egoeraz mintzatu zen ezker atzelaria:

«Taldea ondo dago, baina minduta, etxean irabazi egin behar genuelako». Igandeko agerraldian Kikek eta Julio Salinasek egin bezala, jokaldi estrategikoen garrantzia azpimarratu zuen Begoñak.

«Estrategia lantzen dugu

etengabe, erasoan eta defentsan, baina beti gure kontra dago. Zerbait txarto dago, ez baitugu behar bezalako arrisurik sortzen, eta puntuetan ordaindu egiten dugu», esan zuen Begoñak. Jokaldi bakoitzak bere gakoa duela azaldu zuen: «Gaizki kokatzeagatik izan daiteke, edo arreta gutxi jartzeagatik, baina gertatu behar badu, ahalik eta gutxi gerta dadila».

Bizkaitarrarentzat, ez dira batere onak Kike atezainak igandean entzun zituen txistuak, «tristeia baita etxeko atezaina edo etxeko edozein jokalaritxistukatzea partidua bukatu barik dagoenean». Dena dela, publikoak horretarako eskubidea duela onartu zuen: «Zaleek dute hitza, gola sartzen dugunean txalotzeko edo txarto iruditzen zaienean txistu egiteko, baina taldearen kontra doala jakin dezatela».

Oro har, derbian gehiago merezi izan zutela uste du Begoñak, eta emaitza txarrekin konfiantza beherantz doala onartu du. Etorbizunari begira, zera esan zuen Ibon Begoñak: «Etiket at zaila da emaitzak lortzea, baina etxean ez badugu lortzen, kanpoan izan beharko. Hutsean itzuliz gero, egoera zailean sartuko ginateke. Baikor gaude, baina erabat normala da burumakur egotea, kolpe batzuk jaso ditugu segidan eta burua altxatzea gehiago kostatzen zaizu».

hor zain

Thierry Henry aurrelari gaztea fitxatu du Juventus

2003. urteko ekainaren 30a arteko kontratua sinatu du orain arte Thierry Henry aurrelariak —orain arte Monaco taldean jokatzen zuen— Turingo Juventusekin. 21 urte baino ez ditu Henryk, eta joan den urteko Mundialean egin zen ezagun, Frantziako selekzioarekin aritu baitzen. Sei partidu jokatu eta hiru gol sartu zituen. UEFA-n Monacorekin jokatu duenez, Juventus ezingo du Txapeldunen Ligara erabili. 2.500 milioi pezetan ordaindu ditu Juventus Henryrengatik.

Erietxera bueltatu da Gil

«Nekatuta, baina lasai» itzuli zen atzo Jesus Gil Malago erietxera. 100 milioi pezetako bermea ordaindu ostean askatu dute At. Madrideko presidentea, eta orain proba batzuk egingo dizkio bihotzean arazorik duen jakiteko. Medikuen aginduei muzin eginez, adierazpenak egin zizkien kazetariei erietxeko sarreran: «Pilula bat hartu eta derbia telebistaz ikusi nuen; pena da epaileak Aguilerari eginiko penaltia ikusi ez izana».

Alemaniko Federazioak ez dio omenaldirik egingo Klinsmanni

Futbola uztea erabaki du azken 10 urteotako jokalaria alemaniar ezagunenetakoa batek, Jurgen Klinsmannek. Alemaniko Federazioak, ordea, ez du onartu hari omenaldia egiteko proposamena. «Triste eta minduta nago, urteetan zehar federazioa ordezkatu baitut», esan zuen atzo Klinsmannek berak. 108 aldiz jokatu du Klinsmannek Alemaniko selekzioarekin.

Benidorm osoa Barcelonaren zain

Bere historian jokatu duen partidu garrantzitsuena jokatu du Benidormek Barcelonaren kontra bihar. Kopako neurketa horrek berebiziko ikusmina sortu du herri turistiko horretan. Herrian dauden hainbat holandar Barcelona animatzera joango dira.

Berti: «Azken ordu erdikoa da egin behar duguna»

NICOLA BERTIRENTZAT estreinaldiko partidua izan zen igandekoa, eta baita aukera paregabea ere. Italiar erdilariak atzo gasteiztarrarekin zailtasunak izango zituela iragarri bazigun ere, ederto ikasi duela erakutsi zuen, batik bat zelaiaren egoeraz hitz egiteko eta, bide batez, huts egin zuen auke-

rari arrazoi bat bilatzeko.

«Aukera izan nuen», onartu zuen italiarrak, «baina areak oso egoera kaxkarrean daude, areak soilik, eta oso bote txarra eman zuen baloiak. Beraz, ezin izan nuen behar bezala errematatu».

Igandekoa debutatzeko alde zuzenetik aukeratu zuten parti-

dua ez zela baieztatu zuen, Realaren aurkako partidua baizik, baina beste erremediorik ez zela izan gaineratu zuen Bertik: «Erritmoa falta zait eta aste osoan lortzen saiatuko naiz, abiadura lortzeko plangintza daukagu eta. Egun saioi bete-betean ez nago, %60an edo baizik».

Anoetako derbiari

begira, pozik dago kutsu bereziko partiduetan eskarmentua hartzen ari da eta: «Niretzat oso esperientzia polita da derbietan aritzea, eta pozik nago zerbait emateagatik. Partidu osoa jokatzeke ez banengo, ordu bete jokatzeke moduan egongo nintzateke».

«Azken ordu erdian egin genuena egin

behra dugu igandean», esan zuen Bertik. Haren aburuz, «berdinke ta zuzenagoa izango zen, baina egoera kritikotikoa azken minutuetako kemena eta espiritu berbera erakutsi behar duzu zelai gainean. Ez zen partidu biribila izan, baina Athleticen egin zuen gauza bera egin genuen guk».